



Usurbilgo Udala

2024/04/11

## 2024KO APIRILAREN 11N EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Josune Urkola Larrarte  
Ivan Iriondo Axpe  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Oskar Santamaria Picabea.

Usurbilen, 2024ko apirilaren 11n arratsaldeko 17:30ean, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 17:30ean batzarrari hasiera eman zaio.

### **1.- USURBILGO HAUR ESKOLA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI ONESPENA EMATEA (2024LIRZ0001).**

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, ezer baino lehen batzarkideek aho batez onartu dute gai-zerrendan sartzea eta tratatzea.

Jarraian, batzarkideek jarduneko alkatearen proposamena aztertu dute gehiengoz onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

2024/04/11

## “AURREKARIAK

**Kontratuaren gaia helburua:** Usurbilgo Haur Eskola Zerbitzua ematea.

**Kontratatzearen beharra edo egokitasuna:** Kontratu honen helburua hau da: Usurbilgo udalerrian haur eskolako udal zerbitzua (hezkuntza zerbitzua, 0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1. zikloa) esleitzea. Jarduera hori Udalak bere gain hartzen du propio bezala. Gizarte eta hezkuntza zerbitzua da, eskolaurreko hezkuntza emateko, eta horretarako pedagogia teknikarik egokienak baliatuko dira eta haurraren kultura eremuan kokatuko da. Une honetan Usurbilgo Udalak ez du zerbitzu hau emateko baliabide propiorik.

**Kontratu mota:** Zerbitzu kontratua.

*Prozedurari dagokionez*

**Espediente-mota:** Ohiko tramitazioa du.

**Eseleipena egiteko bidea eta modua:** Prozedura ireki bidez, erregulazio harmonizatuko kontratua.

### **Baldintza Orriak:**

Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen eta Baldintza Teknikoen Orriak doaz.

### **Araudi aplikagarria**

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -SPKL 2017-
2. -Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra -HAKLEO-onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua

### **Txostenak**

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontuhartzaileren ziurtagiria.
- Zerbitzuaren txostena.

### **Kontratua esleitzeko eskuduntza**

9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Udaltza Plenoa, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %10etik gorakoa denez.

Guzti hau ikusirik, Udaltzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

2024/04/11

**LEHENA:** Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Haur Eskola Zerbitzua kontratatzeko espedienteari onespena ematea.

**BIGARRENA:** Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

**HIRUGARRENA:** Udal aurrekontuan 2024 urteko ekitaldiari dagokion 180.943,33 euroko gastua onartzea hurrengo kontu-sailaren kontura: 5200.227.326.00.04 2024 (RCT 531-2024).

**LAUGARRENA:** Alkateari honako eskumen eskuordetzea egitea:

- Eskaintza onenaren izendapena eta lizitatzailer honi egin beharreko errekerimendua, behin agiriak jaso ondoren Udalbatzari esleipen proposamena bideratuz.
- Izapidetza arrunteko beste edozein eskumen osagarri.

**BOSGARRENA:** Lizitazioa udaleko kontratatzaile profileen eta Europar Batsuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Erabakia gehiengoz hartu da.

## **2.- HAUR ESKOLAKO ERABILITZAILEEI DAGOKIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ORDENANTZA HASIERAZ ONARTZEA (2024ZZZZ0002).**

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, ezer baino lehen batzarkideek aho batez onartu dute gai-zerrendan sartzea eta tratatzea.

Jarraian, batzarkideek jarduneko alkatearen proposamena aztertu dute gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Gaur egun, Usurbilgo Udaleko Haur Eskolaren ordenantzak jasotzen duena kontutan hartuta, araudia aldatu egin behar da. Horretarako, proposamena egingo da araudia berriarekin.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua Erregelamendu eta bestelako Toki-araudiak eta beraien aldaketak onartzeko jardunbidea xedatzen du, honako pausoen arabera:

- Hasierako onespina: Udalbatza Plenoak.
- Erakusketa publikoa eta interesatuentzako entzunaldia, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten: 30 egun.
- Plenoak egindako behin betiko onespina, eta erakusketako epearen barruan aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunei erantzunak.
- Erakusketa publikoko epean inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, araudia behin betikotzat onartua kontsideratuko da.

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENA.-** Haur eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren ordenantza onartzea.

### ***1.Eguneroko harremanak hezitzailearekin.***

Gurasoek, haurra ekarri edo jasotzean, hezitzailearekin eguneroko gorabeherei buruz hitz egin beharko dute.

Hezitzaileek, egunean zehar emandako gertaera garrantzitsuenak adierazi beharko dituzte ere.

Honez gain, hiruhilabeteko pedagogi gaiak jorrazteko gela bilera bat egingo da. Dena den, hezitzailearekin kontsultatu ahal izango da haurraren inguruan izan daitezkeen edozein zalantza.

Gurasoek ezin badute haurra jasotzera joan, alde zurretik abisatuko dute nor joango den hura jasotzera eta honek sinatutako baimena aurkeztuko du.

Haur Eskolako izaera laikoa eta pluralista mantentzeko, guraso eta hezitzaileen iritzi filosofikoa, politikoa edo erlijiosoa errespetatzeko ezin izango da eskolatze-jokaerarik egin.

### ***2.Haur eskolako ordutegi egutegia.***

Haur eskola egutegia irailetik uztaileira izango da, astelehenetik ostiraletara irekia egonez, jai egunak izan ezik, gurasoek kurtso hasieran jasoko dutelarik bete beharreko egutegi zehaztua.

Ordutegia 8:00-16:00ak bitartekoa izango da.

Haurrak gehienez 8 ordu emango du Haur Eskolan.

Aukerako bi ordutegi eskeintzen dira: egonaldi erdia (4 ordu) eta osoa (8 ordu).

Matrikula garaian aukeratutako ordutegia ondorengo salbuespen kasuetan soilik aldatzeko aukera izango da: gurasoren batek lana galtzean edo familiaren egoera larriki zailtzen den egoeratan. Gainera, aldaketa 15 egun lehenago eskatu beharko da.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

Sarrera-irteeren ordutegia ondorengoa da:

	<b>Sarrera goizean</b>	<b>Sarrera eguerdian</b>	<b>Irteera eguerdian</b>	<b>Irteera arratsaldean</b>
0-1 urte	08:00-10:00	12:00	13:00-13:30	14:45-15:00 askaria gabe 15:45-16:00 askariarekin
1-2 urte	08:00-10:00	12:00	13:00-13:30	14:45-15:00 askaria gabe 15:45-16:00 askariarekin
2-3 urte	08:00-09:30	12:00	13:00-13:30	15:45-16:00 askaria gabe

Otorduen ordutegia ondorengoa da:

0-1 urte: 11:00 bazkaria eta 15:10 askaria.  
1-2 urte: 11:00 bazkaria eta 15:10 askaria.  
2-3 urte: 12:00 bazkaria (askaririk ez).

Haurrak medikutara joan behar baldin badu, 8:00-10.00 bitarteko ordutegian eramaten saiatu beharko da. Kontsulta ordua beranduago emanez gero, haurra beranduago etorri daiteke, baina 11.00etatik aurrera etorri ezker, bazkalduta etorri beharko du. 15.00 etatik aurrera etorri gero meriendatuta etorri beharko du ere.

### **3.Egokitzapen prozesua.**

Egokitzapen prozesua 2-3 astetan zehar burutuko da gutxi gora-behera.

Lehenengo astean, haurra Haur Eskolan 2 ordu inguru egongo da aita, ama edota gertuko pertsona batekin. Denbora hori oso garrantzitsua izango da Eskolako funtzionamenduari buruz (gurasoei hezitzaileak ematen dien informazioa) eta haurraren izaerari buruz: ohiturak, loa, jana, (gurasoek hezitzaileari ematen dioten informazioa) hitz egiteko, eta baita guraso-hezitzailearen arteko harreman hastapenak sustatzeko.

Haur bakoitzak bere eguneroko ordutegia egiten hasi aurretik, bigarren astean, haurrak Haur Eskolan egingo dituen orduak luzatu egingo dira, gurasoengandiko banatze prozesua ahalik eta errazen izan dadin. Aste honetan haurrak gehienez 3 edo 4 ordu igaroko ditu bertan.

Bigarren urrats hau eman ondoren, gurasoak edo gertuko pertsonak dagoeneko haurra Haur eskolan utziko du egunero bertan egongo den ordu kopurua beteaz.

Prozesu guzti hau zertxobait alda daiteke haurraren ezaugarri pertsonalak eta adina kontuan izanik, hau da, garapenaren arabera ezberdina izango da.

### **4.Gurasoek etxetik ekarri behar dituzten gauzak.**

Haurraren beharrak era egokian asetzeko beharrezkoak diren zenbait gauza nahiko pertsonalak direnez, haur bakoitzak etxetik ekarri beharko ditu.

Honela, gauza batzuk Haur Eskolan utzi beharko dira kurtsoan zehar eta beste batzuk haurraren poltsan ekarri beharko dira egunero.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

Haur Eskolan utzi behar direnak:

- Biberoia.
- Esnea, papilla.
- Pardelak, «Toailatxo bustiak», haurraren garbitasunerako.
- Txupetea (Haur Eskolan etxekoa erabili arren, komeni da badaezpada gelan beste bat edukitzea).

Egunero poltsan ekarri behar direnak:

- Aldagaiak: Kamiseta, bodia, kuleroak, ...
- Aldatzeko arropa: Pijama, galtzak, nikia ..., Arropa adina eta urte sasoiaren arabera doa.
- Toaila txiki bat.
- Baberoak.
- Arropa zikina sartzeko plastikozko poltsa.
- Jarabea, krema ..., haurrak behar izango balitu.

Dena den, egunero gurasoek hezitzailearekin duten harremanean gauza horiek zehazten joango dira.

Janariari dagokionez, ezingo da kanpotik ekarri.

**5.Osasunari buruzko araudia.**

Haurra gaixo dagoenean ezingo da Haur Eskolara eraman. Xehetasunak informazio txostenean emango dira ikasturtero.

**6.Ixiltasuna.**

12.30etatik aurrera tinbrea ahalik eta motzena jo eta pasiloetan baju hitz egin behar da, siesta garaia baita.

**7.Haur kopuru eta ratioak.**

Usurbilgo haur eskolak gehienez 92 haur jasoko ditu:

- 0-1 urte: 12 haur.
- 1-2 urte: 26 haur.
- 2-3 urte: 54 haur.

Gela bat irekitzeko gutxieneko haur kopurua ondorengoak izango da.

- 0-1 urte: 3 haur.
- 1-2 urte: 5 haur.
- 2-3 urte: 5 haur.

Haur Eskolako guztizko plaza kopurua hala ere, uneko jaiotze tasa kontuan harturik, beharraren arabera aldatu daiteke espazioak horretarako aukera ematen badu.

Ratioei dagokienez, ondorengoak izango dira:

- 0-1 urte: 8 haur gelako. Hezitzaileak 1/5.
- 1-2 urte: 13 haur gelako. Hezitzaileak 1/7.
- 2-3 urte: 18 haur gelako. Hezitzaileak 1/10.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

Eskolan ez badago ratioa betetzeko adina haurrik, adin ezberdineko haurrak gela berean multzokatzeko baimena lortu ahal izango da, jarraian zehazten diren ratioen arabera:

0-1 urte eta 1-2 urte bitarteko haurren unitateak: 1/8

1-2 urte eta 2-3 urte bitarteko haurren unitateak: 1/13

0-1 eta 2-3 urteetako haurrak ezingo dira nahastu.

Haurrak adin ezberdineko gela berean multzokatzeko aukera izanez gero, lehentasuna edukiko du multzokatzeko honek gela berriaren sormenaren gain, betiere adin horretako gela osoa sortzeko aukeraz ez balego. Beraz, gela osoa sortzeko aukera egonez gero gela horrek lehentasuna edukiko du. Aldiz, adin bereko gela bat betetzeko haur kopurua ez balego, adin ezberdineko haurrak nahastutako gela sortu beharko litzateke.

### **8.Matrikulazioa, itxaron zerrenda eta baja.**

#### Matrikulazioa

-Apirilean egingo da. Epetik kanpo matrikulatzeko aukera emango da ere betiere plazak izanez gero. Matrikulazio epean izena eman duten haurren kopurua eskeinitako plazak baino handiagoa denean, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerareka jarraituko da:

- 1) Usurbilen erroldatuta dauden haurrak.
- 2) Kasu berezi edo premiazkoak, halakotzat ulertuz:
  - a) Haur berezia: duen egoera fisikoaren edo psikikoaren eraginez mota honetako dinamikan txertatzea gomendatzen denean.
  - b) Egoera familiarra: egoera hori sozioekonomikoa izan edo familiarra izan, tratamendu berezi bat eskatzen duenean.
- 3) Haurraren anai-arrebaren bat Haur Eskolan lehendik izena emanda dagoenean.
- 4) Haurraren gurasoak lan aktiboan daudenean, edo guraso bakarreko familiak baldin badira. (alarguna, banandua, dibortziatua, guraso bakarrekoa, eta abar), guraso hori lan aktiboan dagoenean.
- 5) Haurraren gurasoetako bat lanean eta bestea langabezia-egoeran baina lan bila dagoenean.
- 6) Haurraren gurasoetako bat lan-egoera aktiboan eta bestea ikasketa ofizialak egiten ari denean.
- 7) Haurraren aita eta ama lanean ez daudenean, baina horietako bat langabezia-egoeran lan bila ari denean.
- 8) Haurraren aita edo ama lan-egoeran dagoenean, eta bestea lan bila ari ez denean.
- 9) Haurra Usurbilen erroldatuta ez badago ere, gurasoetako baten lantokia Usurbilen dagoenean.

Baldintza horiek egiaztatu egin beharko dira, kasuan kasu, eskudunak diren erakunde publikoek edo langile teknikoek igorritako agirien edo txosten teknikoen bidez. Aurreko irizpide horiei dagokienez, egoera berdinean dauden eskatzaileen artean, diru-sarrera txikiak dituztenei emango zaie lehentasuna. Haurren bat arestian aurreikusitako kasuetan sartzen ez bada ere Udalak arreta berezikotzat har ditzakeen arazoak dituela ulertzen badu, Udalak lehen aipatu beste irizpide edo balizkoen gainean lehentasuna eman ahal izango dio kasu horri.

-Haurra ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotza baimenaz gozatzen ari badira edota haurra zaintzeagatiko eszedentzia egoeran egon eta arrazoi horrengatik laguntza ekonomikoa jasotzen badute. Hala ere, matrikula egin ahal izango dute lanpostura itzultzeko data baino lehenago, dagokion enpresa ziurtagiriarekin egiaztatuta.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

-Oraindik jaio ez diren haurrak inskibratzeko aukera egongo da.

-Haur Eskolan hasterakoan, haurrek 16 aste beteta izan beharko dituzte.

#### Itxaron zerrenda

Haur eskolan onartu ez diren hurrekin aurrez aipatutako onarpen-irizpideen arabera zerrenda bat egongo da, hurrenkerari hori aplikatuz ikasturtean zehar plaza libreren bat gertatzen denean.

Plazaren bat libre geratuz gero zerrendako lehenarekin jarriko da harremanetan Haur Eskola eta aste bat emango zaio familiari erantzuteko. Lokalizatu ezin bada edota plazari espresuki uko egiten badiu, itxaron-zerrendatik kanpo geratuko da eta plaza zerrendan hurrengoari eskeinitako zaio.

Bajarik gertatuko ez balitz, haur horiek berriro eman beharko lukete izena, beste ikasturterako izena emateko epe berria zabaldukoan, eta galdu egongo dituzte aurrez hartutako eskubideak.

Erreserba kuota bat egongo da ere, kuotaren zenbateko erdiaren zenbatekoarekin eta irailtik aurrera haurra hasten den hilabetea hasi arte ordainduko dena. Aldiz, jangela kuota haurra Haur Eskolan hasten den hilabetetik aurrera ordainduko da.

#### Baja

Baja eskaera idatziz aurkeztu beharko da hilabete berria hasi baino 10 egun lehenago, bestela hilabete horretako kuota mantendu egongo da.

Justifikatu gabeko hutsa 20 egun edo gehiagokoa izanez gero edo 2 hilabetetako kuota ez ordaintzeak, plaza horren galera suposatuko du automatikoki, plaza hori itxarote zerrendan lehenengo postuan dagoen haurrari esleituz.

Baja ekainean izanez gero, ekaina eta uztaila ordaindu beharko da.

#### **9.Prezioa.**

Ordenantza Fiskaletan zehaztutakoa.

-Hobariari eta anai-arreben prezio eta baldintzei dagokienez, Udalean indarrean dauden Ordenantzek arautuko dituzte.

#### **10.Gobernantza.**

Udaleko hiru ordezkari, lizitatuzailearen hiru ordezkari (ZTko bi kide bat eta Haur Eskolako langile bat) eta Haur Eskolako guraso ordezkariak osatuko du.

Bileren maiztasuna 3-4 hilabetekoa izango da: ikasturtea hasi baina lehen, ikasturtean zehar eta ikasturtea amaitu baina lehen..”

**BIGARRENA.-** Haur eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren ordenantza hasierako onespina erakusketa publikoan jartzea 30 eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten . Horretarako,





Usurbilgo Udala

2024/04/11

dagozkion iragarkiak argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

**HIRUGARRENA.-** Erakusketa publikoko epean inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, ordenantza behin betikotzat onartua kontsideratuko da.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguro, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Erabakia gehiengoz hartu da.

### **3.- SORTALDE, USURBILGO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA KOOP.S.-KO BAZKIDE LAGUNTZAILE EGITEA (2024HBES0008 - HZ.06/2024-0117).**

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, ezer baino lehen batzarkideek aho batez onartu dute gai-zerrendan sartzea eta tratatzea.

Xabier Aranburu Leivak adierazi du Sortalde komunitateko kide dela haseratik eta ez duela bozketan parte hartuko.

Jarraian, batzarkideek jarduneko alkatearen proposamena aztertu dute aho batez onartu dute, honela dio:

“Ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateko bazkide laguntzaile egiteko aukera aztertu ostean, 2024ko apirilaren 8an, honako txostena eman du:

#### TXOSTENA

---

**GAIA:** Usurbilgo Udala, Sortalde, Usurbilgo Energia Komunitateko bazkide egitea.

**UDAL TEKNIKARIA:** Ibon Goikoetxea Retegi

**ESPEDIENTE ZBKIA.:** 2024-HBES-0008

---

#### AURREKARIAK

- 2022. urtean, Usurbilgo Udalak, Goiener Elkartearen zerbitzuak kontratatu zituen, Usurbilgo energia berriztagarrien komunitatea eratzeko aholkularitza lanak egiteko. (2022-ESKA-0071). Lan



horren ondorioz, herri mailako hainbat bilera antolatu ziren, energia komunitate bat zer den eta Usurbilen izan zezakeen interesa azaltzeko.

- Lan horren ondorioz, 2023/06/16an, notaritzan dokumentuan jasota dagoen moduan, "Usurbilgo Energia Berriztagarrien komunitatea kooperatiba sozietatea" irabazi asmorik gabeko sozietate kooperatibo integrala (kontsumo eta lan kooperatiba) eratu zen. Eraketan, 30 usurbildarrek parte hartzen dute
- "Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea" kooperatiba sozietatearen estatuen 2. artikuluan bere helburu soziala jasotzen da.

#### *"2. Artikulua. Helburu soziala*

- *Kooperatibaren xede soziala da bere bazkideen, enplegatuen eta komunitatearen bizi kalitatea hobetzea, lekuko behar sozioekonomikoei modu kooperatiboan erantzunez. **Kooperatibaren azken helburua ez da irabazi finantzarioak ematea, baizik eta ingurumen eta gizarte-onurak ematea** bazkideei, kideei eta lan egiten duen komunitateari. Azken finean, **herriko eragile eta instituzioekin batera lan eginez, onurak ematea herriari eta herritarrei, harreman publiko-komunitarioak indartuz**. Horretarako, eremu hauetan jardungo du:*
- *Energia Berriztagarrien Komunitate baten jarduerak garatu, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruz Europako zuzentarauek ezarritako printzipioak hartuta. Honakoak izan daitezke:*
  - *Energia-kontsumoaren murrizketa, energia-eraginkortasuneko neurrien, prestakuntzaren, informazioaren eta aholkularitza-zerbitzuen bidez, baita birgaitze partzial, sakon eta integralaren arloko esku-hartzeak ere;*
  - *Mugikortasunaren arloan energia-mendekotasuna murrizteko beharrezkoak diren jarduerak;*
  - *Energia berriztagarriei buruzko azterketak eta proiektuak sustatzea, komunitatean energia burujabetza lortzeko, gutxienez.*
  - *Energiari lotutako ekipoak eta zerbitzuak modu mankomunatuan erostea, kolektibo osoari baldintza hobeak eskaintzeko.*
- *Ondasunak nahiz zerbitzuak hornitzea, bazkideek eta haiekin bizi direnek erosteko, erabiltzeko edo kontsumitzeko. Ondasun*



*eta zerbitzu horien soberakina bazkide ez diren pertsoneri edo erakundeei hornitu ahal izango zaizkie.*

- *Talde zaurgarriak eta baztertuak integratzea, beraien bizikaltatea hobetzeko jardueren bidez.*
- *Lekuko beharrei erantzunez, tokiko baliabideak modu kolektiboan, kooperatiboan eta ingurumena zainduz kudeatzeko ekintzak bultzatzea, horretarako behar diren azpiegitura, tresna, baliabide eta zerbitzuak aktibatuta.*
- *Ekonomia zirkularra bultzatzeko ekimenak egin, lekuko baliabideen eta baliabide naturalen ustiapena eta erabilera logika zirkularrean jarriz.*
- *Energia ekoizpena eta sortutako baliabide energetikoen eskuragarritasuna zabaltzea.*
- *Bazkide eta herritarrentzat energi sorkuntza, kontsumo, ekonomia sozial eta trantsizio ekologiko eta orokorrean kooperatibaren jardunari lotutako formakuntzak eskaintzea.*
- *Kooperatibaren ekimenekin lotutako argitalpenak sortu eta saltzea.*

*Kooperatibaren jardunean beste herri eta proiektuekin elkarlanean jardutea, interkooperazioaren irizpideekin, jakintza, baliabideak eta harremanak elkarbanatuz, horretarako beharrezkoa balitz bigarren mailako egituretan parte hartuz.”*

- “Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea” kooperatiba sozietatearen estatuen 8. artikuluan bazkide nor izan daitekeen jasotzen da.

*Bazkideek sozietate-harremana dute kooperatibarekin.*

*Modalitate hauetako batean kokatuko dira bazkideak:*

*1. Bazkide motak:*

*a Bazkide kontsumitzaileak.*

- *Lan-bazkideak.*

- ***Bazkide laguntzaileak.***

- *Bazkide ez-aktiboak, ez-erabiltzaileak eta eszedentziadunak.*

*(...)*

*c. **Bazkide laguntzailearen** izaera hartu ahalko du edozein pertsona fisikok edo juridikok, publikoa nahiz pribatua, kooperatibaren helburu soziala erabat bete ezin izanda ere hura lortzen lagundu badezake, eta estatutu hauetan eta barne-araudian zehaztutako eskubideak eta betebeharrak onartzen baditu.*



**5. Bazkide laguntzaile gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:**

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski izatea.
  - b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
  - c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
  - d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
  - e) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.
- Estatutuen arabera, bazkide laguntzaileen betebeharrak hurrengoak dira.

**14. Artikulua Bazkideen betebeharrak.**

- Bazkideek betebeharrak dituzte:
- 1. Batzar Orokorraren eta gainerako organoen bileretara joatea, deialdia egiten bazaie.
- Karguren bat betetzeko hautatuak izan badira, onartzea, ez onartzeko bidezko arrazoiren bat ez badago behintzat.
- Kooperatibaren helburu soziala osatzen duten jardueretan parte hartzea. Horretarako, partaidetzako gutxieneko modulu edo arau hauek zehazten dira, kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat:  
(...)

**Bazkide laguntzaileentzat:**  
kooperatibaren esanetara egotea, helburu soziala garatzeari eta hobetzeari begira eskatzen zaizkien lanak egiteko eta laguntzeko.

- Estatutuen arabera, bazkideek hurrengo ekarpenak egin behar dituzte.



**52. artikulua. Bazkideen nahitaezko ekarpenak**

**1. Bazkideen nahitaezko ekarpenak.**

*Hasieran egin beharreko nahitaezko ekarpena bazkide motaren arabera da:*

- *Bazkide kontsumitzaileek: ehun euro (100 €).*
- *Iraupen mugagabeko lan-bazkideek: bostehun euro (500 €).*
- *Iraupen mugatuko lan-bazkideek: berrehun eta berrogeita hamar euro (250 €).*
- *Pertsona fisikoak diren bazkide laguntzaileek: hamar euro (10 €).*
- *Pertsona juridikoak diren irabazi asmorik gabeko bazkide laguntzaileak: bostehun euro (500 €).*
- **Administrazio publikoko bazkide laguntzaileak: mila euro (1.000 €).**
- *Pertsona juridikoak izanda, irabazi asmorik gabekoak ez diren bazkide laguntzaileek: mila euro (1.000 €).*

**AZTERKETA ETA PROPOSAMENA**

Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 1/2024 Legeak, komunitate energetikoen aipamena egiten du, zehazki hurrengoa jasoz.

*20. artikulua Trantsizio energetikoaren gidalerro orokorrak.*

*(...)*

*f) Jendarte osoak trantsizio energetikoan zeregin aktiboa izan dezala sustatuko da, autokontsumoaren bidez, **komunitate energetikoen bidez** edo instalazio berriztagarrien instalazioetan eta biltegiatzean parte hartuz.*

*24. artikulua.– Energia berriztagarrien gidalerroak.*

*(...)*

*6.– **Euskal administrazio publikoek herritarren energia-komunitateen eta energia berriztagarrien komunitateen garapena sustatuko dute**, sorkuntza kontsumo-puntuetara hurbiltzeko eta energia-sistemaren demokratizazio handiagoa lortzeko, arreta berezia jarri eremu ahulenetan eta herritarrek teknologia berriztagarrien proiektuetan parte har dezatela sustatzeko.*

Beraz, aurrekarietan jasotakoa eta berriki EAE-n onartu berri den 1/2024 Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren legea kontutan hartuta, hurrengoa ondorioztatzen da:



Usurbilgo Udala

2024/04/11

- Sortalde, Usurbilgo Energia Berriztagarrien komunitatea kooperatiba sozietatea, eragile garrantzitsu eta sustatu beharrekoa da ingurumen araudia jarraikiz udalerrri mailan eman behar den trantsizio energetiko eta klima aldaketari aurre egiteko.
- Sortalde, Energia komunitatearen estatutuak aintzat hartuta, Usurbilgo Udala komunitateko bazkide laguntzaile izateko baldintzak aurreikusten dira, horretarako bazkide izateko eskaera egin eta 1.000 €-ko ekarpena egin beharko delarik.
- Nabarmendu behar da, Sortalde Kooperatibaren azken helburua ez dela irabazi finantzarioak ematea, baizik eta ingurumen eta gizarte-onurak ematea herriko eragile eta instituzioekin batera lan eginez, onurak ematea herriari eta herritarrei, harreman publiko-komunitarioak indartuz

Guzti hau kontutan hartuta, ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut Usurbilgo Udala, Usurbilgo Energia Berriztagarrien komunitatea kooperatiba sozietateko bazkide laguntzaile izateko. Horretarako, hurrengo pausuak eman beharko liraketelarik:

- a. 6100.227.170.00.01 2024 partidan 1.000 euroko gastua aurreikusi.
- b. Usurbilgo Energia Berriztagarrien komunitatea kooperatiba sozietateari Usurbilgo Udala bazkide laguntzaile izateko eskaera egin.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Ibon Goikoetxea Retegi  
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

### **IDAZKARIAREN TXOSTENA**

Gaia aztertu ostean, Xabin Juaristi Arrieta jaunak, 2024ko apirilaren 5ean, honako txostena eman du:

#### **Idazkariaren txostena**

**Gaia:** Energia Berriztagarrien Komunitatearen bazkide laguntzaile izatea onartzea.

**Sinatzailea:** Idazkaria

### **IDAZKARIAREN TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

2024/04/11

Udal organo eskudunak onartu aurretik eta Estatuko izaerako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarien araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3 artikulua ezarritakoa betez, luzatzen dut honako

## **TXOSTENA**

### **LEHENA. - Aplikatu beharreko legeria.**

2018/2001 (EB) Direktiba, 2018ko abenduaren 11koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena Iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzkoa.

781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena.

39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

1955eko ekainaren 17ko Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua.

24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektroari buruzkoa, eta lege hori aldatu eta garatzen duten legeek eta errege lege-dekretuek, bereziki honako hauek: 17/2019, 23/2020, 17/2021, 23/2021 errege lege-dekretuak eta 244/2019, 1183/2020 errege dekretua (kasu honetan erregelamendu bat da).

16/2017 Legea, abuztuaren 1koa, Klima-aldaketari buruzkoa.

### **BIGARRENA. – Eskumena.**

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b) artikulua honela dio:



«1. Udalerriak, eskumen propioak egikarituko ditu beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, honako gai hauetan: [...] b) Hiri-ingurumena: bereziki, parke eta lorategi publikoak, hiri- hondakin solidoen kudeaketa eta argi-, hots-kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa hiriguneetan».

Etkez etxeko energia elektrikoaren hornidura-zerbitzua, zerbitzua eskuratzeko askatasunaren erregimenpean eta borondatez hartua, ez dago Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritako nahitaezko gutxieneko zerbitzu publikoen artean. Hori dela eta, zerbitzu hori hartu beharko da jarduera ekonomikoen ekimen publikotzat.

Halaber, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.8 artikulua xedatzen du udalerriek erabili ahal izango dituztela eskumen propioak honako esparru material honetan: «Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta».

Azkenik, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6.1.j) artikulua berariaz ematen die **baimena** tokiko agintariei, horien artean baita **udalerriei** ere, **energia berriztagarrien komunitateetako bazkide izateko**, baldin eta komunitate horiek energia elektrikoaren hornidurara bideratutako jarduerak egiten badituzte euren bazkideei, kideei edo jarduten duten tokiko eremuei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak lortzeko, finantza-irabaziak erdietsi. Era berean, Klima- aldaketari buruzko abuztuaren 1eko 16/2017 Legearen 2.3 artikulua arabera, toki-erakundeak erantzule dira legeak berak aldarrikatzen dituen helburuak lortze aldera: berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, klima- aldaketaren inpaktuekiko zaugarritasuna murriztea, eta berotegi-efektuko gasen emisioetan ekonomia neutrorra heltzeko trantsizioa erraztea.

## **HIRUGARRENA. - Gaiaren azterketa.**

Arestian adierazi dugun moduan etkez etxeko energia elektrikoaren hornidura-zerbitzua ez dago Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritako nahitaezko gutxieneko zerbitzu publikoen artean eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 86.1 artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97.1 artikulua, eta Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduaren 45 artikulua eta hurrengo artikuluek exijitutako espedientea tramitatu behar da. Artikulu horiek





diotenez egiaztatu behar da neurria komenigarria eta egokia dela eta horixe da adierazten dena ingurumen teknikariaren txostenean.

Energia Berriztagarrien Komunitatearen helburuak interes publikokoak diren ala ez aztertu ahal izateko, haren helburu sozialari erreparatu behar diogu, zehatza izan behar baitu, Auzitegi Gorenak dioen moduan; izan ere, zehazgabetasuna, orokortasuna, eta zehaztasunik eza direla eta, ekimen publikoen espezialitate-printzipioa urratzen dela ondoriozta daiteke. Kasu honetan, ordea, ez da horrela Energia Berriztagarrien Komunitatearen estatuei so eginez horiek argi eta garbi jasotzen baitute Konstituzioaren 103.1 eta 128.2 artikuluen zentzua eta interes publikoa.

Energia Berriztagarrien Komunitatearen objektu sozialari dagokionez, aipatu behar da gure antolamendu juridikoa merkatu elektrikoaren liberalizazioak zenbait fase pasatu dituela:

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak hasitako lehen fasean, zeina abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak finkatu baitzuen, energia elektrikoak instalazioak garraiatu, banatu, merkaturatu, hornitu eta baimentzeko prozedurak arautzen dituenak, jardura arautuak (energiaren garraioa eta banaketa) eta arautu gabeak (ekoizpena eta merkaturatzea) bereizi ziren. Bi arau horien ondoren, ezinbestekoa izan zen enpresa elektrikoek jardura horiek banantzea kontabilitatean eta juridikoki.

Beranduago, Sektore Elektrikoari buruzko uztailaren 4ko 17/2007 Legeak ezarri zuen merkaturatzaileek gauzatuko zutela tarifako hornidura- jardura osorik lehia askean, une horretara arte enkargatutako banatzaileak ordezkatzuz. Azkenik, apirilaren 3ko 485/2009 Dekretuak azken baliabideko hornidura abian jartzea arautu zuen, eta 2009ko uztailaren 1etik aurrera honako hauek egiteko beharra ezarri zuen:

Araudi horren ondorioz, enpresa banatzaileek jada ezin zioten elektrizitatea saldu zuzenean bezeroari, eta jardura hori enpresa merkaturatzaileek soilik egin zezaketen.

Araututako tarifak desagertu ziren azken errekurtsoko tarifa izan ezik (AET edo TUR, gaztelaniaz), 10 kW-tik beherako behe-tentsioko eta potentzia kontratatutako horniduretarako.

Azkenik, lege-aldaketa nabarmenak sektore honi dagokionez honako arau honekin amaitu dira momentuz: Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak Energia arloko eta ekonomia suspertzeko beste eremu



batzuetako neurriak onartzen dituenak —duela gutxi aldatua—, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan aurreikusitako energia berriztagarrien sektoreko energia berriztagarriei buruzko definizioa jasotzen duena. Direktiba horren arabera, Energia Berriztagarrien Komunitatearen helburua da herritarrek eta tokiko agintariek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea. Horri esker, energia horiek gehiago onartuko dira tokian bertan eta herritarrek parte- hartze handiagoa izango dute trantsizio energetikoan.

Gainera, Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren 6. apartatuan, zeina 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen bidez sartu baitzen, energia-iturri berriztagarrietan, kogenerazioan eta hondakinetan oinarritutako eta erregimen ekonomiko primatua duten ekoizpen-jardueraren araubide juridiko eta ekonomiko berriari dagokionez, honako hau xedatzen baitu:

*"Gobernuari gaikuntza ematen zaio **energia-komunitateen titulartasuneko sortze-instalazio guztiek** (hau da, irabazi-asmorik gabeko erakundeek, pertsona fisikoek edo enpresa txiki eta ertainek, baldin eta haien akziodun edo kide nagusiak pertsona fisikoak, tokiko edo probintziako erakundeak edo beste enpresa txiki eta ertain batzuk badira) **ordainsari-tratamendu berezia izan dezaten**, sortze-merkatuan nahitaez iraun ahal izateko ezinbesteko tresna gisa."*

Hau horrela, **Udalak energia-komunitate batean** edo kontsumitzaile-eta erabiltzaile-erkidego batean **parte hartzeak**, edo energia iturri berriztagarrien bidez sortzeko antzeko beste modu batean, eta, ondoren, hura hornitzea eta bazkideen mesedetan banatzeak, **ez du arazorik** sortzen eskumenen eta jardueran aritzearen ikuspegitik, **autokontsumo-erregimenean egiten bada**, hau da, instalazioak 100 kW-tik gorako instalazio-potentzia ez badu, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzetan, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituena, baita ere, 1699/2011 Errege Dekretuan 100 kW-eko edo hortik beherako potentzia nominala duten eta zuzenean 1 kV-tik gorako tentsio-sare batera konektatuta dauden energia elektrikoa ekoizteko instalazioak aldeztatuak diren administrazio-baimenaren erregimenetik kanpo uzten dituenak, bai banaketakoak, bai kontsumitzaile baten barne-sarera konektatuta daudenak, eta azkenik, urriaren 9ko 900/2015 Errege Dekretua energia elektrikoaren autokontsumoko hornikuntza-modalitateen eta autokontsumoko ekoizpen- modalitateen baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena.



Usurbilgo Udala

2024/04/11

## ONDORIOAK

Energia Berriztagarrien Komunitateak, honako ezaugarri hauek dituzte: euren jarduerak energia berriztagarriei lotuta egon behar dute; erabakiak hartzean, nagusiki pertsona fisikoek parte hartu behar dute, eta ordezkari-organotan tokiko interesen ordezkariak nagusitu behar dira; ekoizpen-ahalmena aldi berean mugatuz.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Energia Berriztagarrien Komunitateak entitate juridikoak dira, partaidetza irekian eta norabanakoen borondatean oinarrituta, autonomoak dira eta bazkideek benetan kontrolatzen dituztenak publikotzat jo daitezkeen helburuak erdiesteko. Entitate juridiko horien jabetzakoak diren eta erakunde juridiko horiek garatu dituzten energia berriztagarrien proiektuen inguruan daude kokatuta, eta erakunde horien bazkide edo kideak pertsona fisikoak, enpresa ertainak eta txikiak, edo tokiko agintariak dira, udalerrriak barne, eta haien helburu nagusia da tokiko bazkideei ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak ematea, tokiko eremuetan edo bazkideei.

Aurreko guztia aztertuta, idazkari honen iritziz edozein forma juridiko posible da Energia Berriztagarrien Komunitatea eratzeko, betiere merkatu pribatuan esku hartu badezake, eta ez da derrigor kapital sozietate bat izate baina bai enpresa figura izan behar du: enpresa erakunde publikoa, tokiko merkataritza-sozietatea, kooperatiba-sozietatea). Arrazoi berberak direla medio, legezkoa da Usurbilgo Udalbatzak bazkide izateko erabakia hartzea eta ekarpen ekonomikoa egitea Energia Berriztagarrien Komunitateari.

Aurrez esan bezala, **Udalak energia-komunitate batean parte hartu dezake autokontsumo-erregimenean egiten bada**, hau da, instalazioak 100 kw-tik gorako instalazio-potentzia ez badu.

Hau da sinatzen duen idazkariaren iritzia, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpideren baten kalterik gabe.

Usurbilen, sinadura datan.  
Udal idazkariak

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Ingurumen eta nekazaritza teknikariak proposatutakoa kontutan izanik, SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea Kooperatibako bazkide



Usurbilgo Udala

2024/04/11

laguntzaile egiteko, Usurbilgo Udala Sortalde Kooperatibako bazkide laguntzaile izateko dagokion eskaera egitea Kooperatibako Errektore Kontseiluari.

**BIGARRENA:** Sortalde Kooperatibako bazkide laguntzaile gisa onartzen bagaituzte, kooperatibaren kapital sozialera hasierako nahitaezko 1.000 €-ko ekarpena udal aurrekontuko (A 378/2024) 1.6100.227.170.00.01 2024 (2773) partidatik ordaintzea.

**HIRUGARRENA:** SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea Kooperatiban baitan, Usurbilgo Udalaren izenean ondorengo ordezkaria izendatu: **Ainhoa Arrozpide Landa**.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri Sortalde Kooperatibako Errektore Kontseiluari eta kontuhartzaitzari ematea.”

Bozketa honeta izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Erabakia aho batez hartu da.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**